Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Enpresentzako zerbitzuen zorroa

Zure enpresatik hurbilago

Lan bila,
Lanbide

Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Eta zugandik hurbilago



LANBIDEK PROSPEKZIO-TALDE BAT JARTZEN DU ZURE ESKU ESKURA

TALDE HORREK ZURE ENPRESARA HURBILDUKO DU LANBIDE, ETA ZURE ERANKUNDEAK BALIA DITZAKEEN ZERBITZUEN BERRI EMANGO DIZU, JOAN-ETORRIRIK EGIN GABE

Zerbitzu-Zorroa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Aholkularitza pertsonalizatua

Gure taldeak zure enpresarako funtsezkoak diren erabakiak hartzen lagunduko dizu, aurrez aurre nahiz birtualki, zure erakundearen erritmora egokituz.

Konfiantzazko prospektoreak

Entzun, galdetu eta zure beharrei aurrea hartzen dieten teknikari espezializatuak izango dituzu. Horiek enpresa gisa dituzun beharretera hobekien egokitzen diren programa eta zerbitzuen berri emango dizute.

AURKIBIDEA

1. EURES SAREA 6
- Eures Sarea: Europako Mugikortasuna

2. ENPRESEN ZERBITZUA 9
- LanMentoring
- Konektalan
- Enpresentzako aholkularitza
- Enplegu lagundua
- Desgaitasunen bat duten pertsonei enplegua erreserbatzea
- 50 urtetik gorakoak kontratatzeko dirulaguntza

3. SUSTAPENA 24
- Lehen Aukera
- Ikerlan
- Txanda-kontratuak egiteko laguntzak
- Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak

Lanbide

AURKIBIDEA

4. LANERATZE 36
- Lan eskaintza

5. GABINETE TEKNIKOA 40
- Lan-merkatuaren txoztenak eta estatistikak
- FutureLan

6. PRESTAKUNTZA 44
- Hezibi
- Prestakuntza-premia sektorialak hautemateko azterlanak eta analisiak egitea
- Prestakuntza-ekintza estrategikoak empresa
- Morrokotudak
- Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzara bideratutak...

7. INKLUSIOA 55
- Prestakuntzarako errotzea
- Errotze soziolaborala

Lanbide

01/ EURES sarea

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

EURES sarea: Europan lan egitea

Europako herrialdeen arteko lan-mugikortasunari laguntzeko sarea, enplegu-zerbitzu publikoek eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuek osatua. Enplegu-eskaintzak aholkatu, zabaldu eta nazioarteko hautaketa-prozesuak kudeatzen ditu.

HELBURUA

Nazioarteko eskaintzak eta hautaketa-prozesuak bitarteko izatea eta kudeatzea, jatorrizko herrialdeetako EURES Sarearekin lankidetzan.

NORENTZAT

• Europako beste estatu batzuetatik datozen pertsonen hautagaitzak lortu nahi dituzten enpresak, pertsona horiek kontratatzeko (eskaintzen zabalkundea eta hautaketa-prozesuak)

• Europar Batasunaren (EB), Europako Esparru Ekonomikoaren (EEE) eta Suitzaren (lan-legeria, tituluen baliokidetasunak, hizkuntza-oztopoak, integrazioa) barruan langileen mugikortasunari buruzko gaietan informazioa edo aholkularitza behar duten enpresak.

EURES sarea: Europan lan egitea

EZAUGARRIAK

• Doako zerbitzua

• Enpresa bakoitzaren beharretara egokitua

• EURES SAREKO kide diren herrialdeetako 1.000 profesional baino gehiagoren laguntzarekin

• Europako beste herrialde batzuetatik etorritako langileak integratzeko finantza-laguntzako programetarako sarbidea (EURES-TMS laguntzak)

Zure ohiko enplegu-bulegoan erregistra ditzakezu eskaintzak, eta Europa mailan zabaltzeko interesa duzula adierazi; era berean, zure kontsultak posta elektronikoz bidal diezazkiokezu zure probintziako EURES sailburuari, eta hark ahalik eta lasterren jarriko zaitu harremanetan.

ESTEKA INTERESGARRIAK

Eures sarea enpresentzat

EURES-en erregistratu

Lan-mugikortasunerako laguntzak EURES

CONTACTO

Nieves Saiz-Calderón Salazar

O Helbidea: Pasaje de las Antillas nº 14

O Herria: 01012 Vitoria-Gasteiz (Araba)

O E-mail: nieves.saiz-calderon@lanbide.eus

Ana Rosa Uribe Puente

O Helbidea : Ercilla 4 -1º; Planta

O Herria : 48009 Bilbao (Bizkaia)

O E-mail: ana-rosa.uribe@lanbide.eus

Violeta Morcillo Narciso

O Helbidea : San Marcial, 12

O Herria : 20005 Donostia - San Sebastian (Gipuzkoa)

O E-mail: violeta.morcillo@lanbide.eus

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

02/ Enpresentzako zerbitzuak

LanMentoring

HELBURUAK

Belaunaldi-erreleboari arrakastaz heltzea plantilletan edo negoziorako kritikoak diren lanpostu jakin batzuetan.

Ezagutza modu egokian transferitzeko eta konpainian egoteko moduan. Egiten ikastea – sistematizatzea eta berritzea.

EZAUGARRIAK

50 orduko aholkularitza pertsonalizatua

Ez du kosturik enpresarentzat

Urte osoan dago eskuragarri

Euskadiko ETEei zuzendua

10 eta 249 profesional arteko plantillekin

Lehentasunez core sektorekoak (industria, lotutako zerbitzuak, garraioa, handizkako merkataritza, elikadura, etab.)

Prozesua eta trazabilitatea

LanMentoring

Zerbitzua eskuratu nahi duen empresa

Izena ematea Lanbideren webgunean– DIAGNOSTIKO formularioa osatuta

Egokitasunaren azterketa eta konpromisoaren berrespena–**BALIOZKOTUTAKO DIAGNOSTIKOA**

Enpresa zerbitzuan sartzen da

Azterketa kasuistikoa eta beharra – **AHOLKULARITZA ENPRESA ESLEITZEA**

Zerbitzua emateko konpromisoa– **SINATUKO AKORDIOA**

Zerbitzuan parte hartzen duen enpresa

Hiru fase: diagnostikoa, aholkularitza eta laguntza.

Gutxienez ekintza bat inplementatzea

6 hilabeteko exekuzioa: gutxenez 10 lan-saio – **PROZESU SISTEMATIZATUA**

ESTEKA INTERESGARRIAK

- LanMentoring

Konektalan

ZER DA

Kalitatezko enpleguaren ekosistema Euskadin.

HELBURUAK

- Kalitatezko enplegua sustatzea, pertsonen eta enpresen arteko topaguneak eta baterako sorkuntzarako guneak eskainiz, lurraldean talentua erakartzeko eta atxikitzeko irtenbideak aurkitzeko.
- Proiektuak kudeatzeko eta garatzeko tresnak lankidetzan jartzen laguntzea, ezagutza, esperientziak eta edukiak trukatuz.
- Enpresentzako elkargune eta ikusgarritasun-gune bat eratzea.

NORENTZAT

KonektaLan herritar guztientzako gunea da, eta honako hauek bat egiten dute bertan:

- Enpresa berritzaileak eta enplegua sortzeko eta euskal produkzio-sarea garatzeko konpromisoa dutenak.
- Euskadin karrera profesionala egin nahi duten pertsonak.
- Garapenerako palanka diren eragile instituzionalak, sindikalak edo enpresarialak.

Konektalan

EZAUGARRIAK

Pertsonentzat:

- Enplegu-aukerak edo enpresetan praktikak egiteko aukerak identifikatzea.
- Harreman zuzena erakundeetako giza baliabideetako talentu-arduradunekin.
- Gaurkotasunari, beka-programei eta prestakuntzarako laguntzei buruzku informazioa.

Enpresentzat:

- Antzeko hautagaiak bilatzea lan-poltsetarako.
- Enplegu-poltsetarako hedapen-kanal berri bat.
- EAEko kontratazioaren aurreko gaurkotasun, laguntza eta pizgarriei buruzko informazioa.

Konektalan

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

✉ konektalan@lanbide.eus

ESTEKA INTERESGARRIAK

Informazioa eta sarbidea

KonektaLan

Enpresentzako aholkularitza

IZENBURUA

Enpresei lan-kontratuei, hobariei eta Contratr@ aplikazioari buruzko informazioa ematea.

ZER DA

Enpresei zuzendutako informazio-zerbitzua, lan-kontratuei, pizgarriei eta hobariei buruzko zalantzak eta kontsultak artatzen dituena. Gainera, laguntza eskaintzen du Contra@ aplikazioaren lan-kontratuen komunikazioan.

HELBURUA

Lan-kontratuekin, hobariekin eta Contrat@ aplikazioarekin lotutako galderei erantzutea eta zalantzak argitzea.

NORENTZAT

- Kontratatzeko asmoa duten eta zalantzak argitzeko edo erabakiak hartzeko informazioa nahi duten enpresak.
- Kontratatu dituzten eta kontratazio horren berri emango duten enpresak.

Enpresentzako aholkularitza

EZAUGARRIAK

- Teknikari espezializatuek eskainitako aholkularitza.
- Kontratuei eta hobariei buruzko kontsultak arin eta eraginkortasunez ebaztea.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUAK

- Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua. Informazio Orokorra 945160601
- Enplegu-bulegoetako teknikariekin aurrez aurreko eta/edo telefono bidezko hitzordua eskatzeko telefono bera.

Enpresentzako aholkularitza

ESTEKA INTERESGARRIAK

- Kontratu motak
- Kontratu-gida
- Contrat@-rako sarbidea
- Kontratazioak jakinarazteko prozedura

Enplegu lagundua (ECA)

IZENBURUA.

Enpresei laguntzeko programa, desgaitasuna duten langileak laneratzeko.

ZER DA

Enplegu Lagundua (ECA) aholkularitza eta esku-hartze pertsonalizatuko programa bat da. Horren bidez, profesional espezializatuek enpresei eta desgaitasuna duten pertsonei laguntzen diete azken hauek lan-merkatu arruntean integra daitezen, lana behar bezala egiten dutela bermatuz.

HELBURUA

Enpresei laguntzea desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen % 2ko erreserba-kuota betetzeko legezko betebeharrean eta, hala badagokio, erantzukizun sozial korporatiboaren balioetan (RSC).

Enplegu lagundua (ECA)

EZAUGARRIAK

Enpresari jakinaraztea eta laguntzea, aldez aurretik, lanposturik egokiena eta hura betetzeko gaitasuna eta motibazioa duten langileak identifikatzen.

Desgaitasuna duten pertsonak banaka eta modu pertsonalizatuan prestatzea, langile espezializatuen bidez, zereginak modu autonomoan eta eraginkorrean egiteko.

Enpresan laguntza espezializatua jasotzea, bai desgaitasuna duen pertsonarentzat, bai harekin lan egiten dutenentzat, lanpostuan behar bezala integratzea eta mantentzea errazteko.

Aldizkako jarraipena egitea kontratuak irauten duen bitartean, eta, beharrezkoa denean, modu pertsonalizatuan esku hartzea.

Laguntza-zerbitzu gisa, ez dago epeen mende: pertsonari eta enpresari ematen zaien laguntza mailakatua da, eta lan-harremanaren hasieran biziagoa izan daiteke, eta denboran luzeagoa, beharren arabera.

Doako programa da enpresarentzat.

Aplikagarriak dira Gizarte Segurantzako hobariak eta pizgarriak.

Enplegu lagundua (ECA)

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUAK

- Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua. Informazio Orokorra

☎ 945160601

✉ enpresa.zerbitzuak@lanbide.eus

ESTEKA INTERESGARRIAK

2025ko ekitaldirako, enplegu lagundurako jarduerak garatzeko laguntzen deialdia - Lanbide

Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-erreserba

IZENBURUA

Desgaitasuna duten pertsonentzako % 2ko erreserba-kuota betetzeko erreserba-kuota eta ordezko neurriak.

ZER DA

Enpresei laguntzeko informazioa, desgaitasuna duten pertsonak laneratzeari dagokionez eta lanpostuen % 2 desgaitasuna duten pertsonentzat gordetzeko legezko betebeharrarekin eta neurri alternatiboekin.

HELBURUA

- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak enpresetan integratzea.
- Enpresei orientazioa eta laguntza ematea, kontratazioaren bidez legezko erreserba-betebeharra bete dezaten, bai eta salbuespenez ere, ordezko neurrien bidez.

NORENTZAT

50 langile edo gehiago dituzten enpresak.

Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-erreserba

EZAUGARRIAK

- % 2ko erreserba-kuota: urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoan, enpresek Lanbideri telematikoki jakinarazi behar diote erreserba-kuotaren emaitza, plantillaren tamainaren eta desgaitasuna duten pertsonek betetako lanpostuen zerrendaren arabera.
- Salbuespen-ziurtagiria eta ordezko neurriak: aholkularitza ematen zaie kontratazio horiek egitea ezinezkoa dela egiazten duten enpresei, eskatzailerik ez dagoelako edo ekoizpen-, antolaketa-, teknika- edo, eta kontratazioz betetzearen ordezko neurriei buruzko aholkularitza ematen zaie.
- Eskaera telematikoari erantsiko zaizkio eskatzailerik ez dagoela adierazten duen ziurtagiria eta/edo justifikazio-memoria bat, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea eragozten duten arrazoiak eta desgaitasuna duten pertsonak kontratatzearen ordez proposatutako neurri alternatiboak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera. Salbuespen-adierazpenak hiru urteko balioa izango du.
- Ordezko neurriak:

- Merkataritzako kontratua edo kontratu zibila enplegu-zentro berezi batekin edo desgaitasuna duen langile autonomo batekin.

- Dohaintza eta babes-ekintzak.

- Lan-enklabe bat eratzea.

Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-erreserba

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakunde eta enpresentzako informazio orokorra : 945 160 601

Erreserba-kuotaren aholkularitza:

✉empleoydiscapacidad@lanbide.eus

ESTEKA INTERESGARRIAK

- Kuota komunikazioa
- Langileriaren batezbestekoaren kalkulua erreserba kuota inguruan
- Salbuespena eta ordezko neurriak

50 urtetik gorakoak kontratatzeko dirulaguntza

IZENBURUA

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntzak emateko 2025erako deialdia.

ZER DA

Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzen dituzten enpresentzako laguntza.

HELBURUA

- ✓ 50 urte edo gehiago dituzten pertsonak, EAEn bizi direnak, langabeak, izena emanda daudenak eta LANBIDEn edo dagokion enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzaile gisa alta emanda daudenak euskal lan-merkatuan berriz sar daitezen sustatzea.

- ✓ Enpresek, kalitatezko enpleguen bidez, egoera horretan dauden pertsonak kontrata ditzaten sustatzea.

NORENTZAT

Enpresa edo erakundeak, edozein dela ere beren forma juridikoa, deialdian ezarritako baldintzetan lan-kontratuak egiten dituztenak, administrazio publikoek eta erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek izan ezik.

50 urtetik gorakoak kontratatzeko dirulaguntza

EZAUGARRIAK

- Lan-kontratuak **mugagabea edo aldi baterakoa** izan behar du, gutxienez 6 hilabetekoa, lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa, eta gutxienez ezarritako lanaldiaren % 70ekoa.
- Urteko soldata gordinaren gutxieneko nahitaezko zenbatekoak ezartzen dira, eta dirulaguntzaren zenbatekoak **kontratuaren iraupenaren (≥ 6 hilabete edo mugagabea**) eta, hala badagokio, lanpostua betetzeko kontratatutako **pertsonaren titulazio-/prestakuntza-mailaren arabera** finkatzen dira.
- **Dirulaguntzak igo egiten dira** kontratazioa honako hauei egiten zaienean:

a) 50 urte edo gehiagoko emakumeak (+ % 15 dirulaguntza)

b) 55 urte edo gehiago dituzten pertsonak (+ % 15 dirulaguntza)

c) 2024an edo 2025ean Lanbideren kontratazio-konpromisoa duen prestakuntza-ekintza bat amaitu duten pertsonak, betiere kontratua mugagabea bada eta lanaldia, gutxienez, ezarritako lanaldiaren % 70ekoa bada (+ % 10 dirulaguntza).

Kontratatutako pertsonak a) edo b) eta c) idatz-zatietako baldintzak betetzen baditu, dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 handituko da.

50 urtetik gorakoak kontratatzeko dirulaguntza

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUAK

- Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua. Informazio Orokorra

☎ 945160601

✉ enpresa.zerbitzuak@lanbide.eus

ESTEKA INTERESGARRIAK

Langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak euskal autonomia erkidegoko lantokietan kontratatzeko 2025erako laguntzen deialdia –Lanbide

03/ Sustapena

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Lehen Aukera

Langabezian eta lan-esperientzia gutxiko titulazioa duten gazteak kontratatzea sustatzen duen programa.

HELBURUA

Euskal enpresek edo beste erakunde batzuek beren tituluarekin lotutako enpleguetan esperientzia gutxi edo lan-esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzeko oinarriak ezartzea eta laguntzak arautzea, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lanbide-esperientzia eskuratuz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortuz eta haien laneratzea sendotuz.

EZAUGARRIAK

Enpresak:

• Kontratuak mugagabeak izan daitezke, edo gutxienez 6 hilabeteko lanbide-praktika lortzeko prestakuntzakoak.

• Lanpostua kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailara edo prestakuntza-mailara egokitu beharko da.

• Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke (gutxienez ezarritako lanaldiaren % 70).

• Kontratazioak enplegu-sorrera garbia ekarriko du, azken seihilekoko plantillaren batez bestekoaren aldean.

Lehen Aukera

Kontratu beharreko pertsonak:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta alta emanda egotea, eta kontratua hasi aurreko egunean lanik gabe egotea.
- Unibertsitateko, goi-mailako edo erdi-mailako LHko titulazioa izatea edo profesionaltasun-ziurtagiria izatea.
- Gehienez 6 hilabeteko lan-esperientzia titulazioarekin lotutako enpleguetan.

KONTAKTUA

Erakunde eta Enpresentzako informazio orokorra: 945160601

INFORMAZIO OROKORRA

✉ **lehenaukera@lanbide.eus**

ESTEKA INTERESGARRIAK

Lehen Aukera

Ikerlan

ZER DA

Euskal enpresetan ikerketa-proiektuak gauzatzeko gazteak kontratatzea bultzatzen duen programa.

HELBURUAK

6 eta 30 urte bitarteko ikertzaile gazteak, teknologoak, teknikariak eta I+G+B arloko beste profil profesional batzuk kontratatzea, bai eta, hala badagokio, ikerketan laguntzeko langileak ere.

NORENTZAT

Enpresa pribatuak, edozein dela ere haien forma juridikoa, bai eta sektore publiko edo pribatuko elkartea eta fundazioak ere, baldin eta ikerketan eta berrikuntzan inbertitzen ari badira, egoitza soziala eta fiskala EAEn badute edo lantokia EAEn badute eta administrazio publiko batek edo gehiagok %50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez badute.

Ikerlan

EZAUGARRIAK

Enpresak

- Diruz lagundu daitezkeen ekimenak honako arlo hauetan garatuko dira: osasuna, trantsizio ekologikoa, ekonomia berdea (energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua eta nekazaritzako elikagaien industria), eta zerbitzuen digitalizazioa eta Data science.
- Enplegu-eskaintzak Lanbideren bitartekaritza-sistemaren bidez kudeatu beharko dira.
- Ezin izango dira kontratatu aurreko 6 hilabeteetan erakunde, enpresa edo enpresa-talde berean edozein motatako ikerketa-lanpostuetan aritu diren gazteak.
- Indarreko legeriarekin bat etorriz, ekimen bakoitzaren inguruabar zehatzetara hobekien egokitzen den modalitatean egingo dira kontratuak.
- Kontratuen gutxieneko iraupena 12 hilabetekoa izango da. Eta dirulaguntzaren gehieneko iraupena 2 urte.
- Kontratuak lanaldi osokoak izan beharko dira.
- Kontratatutako pertsonek diruz lagundu daitezkeen ekimenekin lotutako eginkizunak eta zereginak garatu beharko dituzte.

Ikerlan

EZAUGARRIAK

Kontratatu beharreko pertsonak:

- 16 urte baino gehiago eta 30 bainoa gutxiago izatea.
- Langabezian egon, Lan-eskatzaile gisa izena emanda eta altan egotea edozein enplegu-zerbitzu publikotan, kontratua hasi aurreko egunean.
- Formalizatzen den kontratu-modalitaterako eskatzen diren baldintzak betetzea.
- Ikertzaileen, teknologoen, teknikarien eta I+G+Bko beste profil profesional batzuen kalitatezko ikerketa-proiektuak eramateko gaitasuna izatea.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

- Erakunde eta enpresentzako informazio orokorra: 945160601 - 945015585

✉ **servicio.fomento@lanbide.eus**

Gazteak euskal enpresetan ikerketa-proiektuak egiteko kontratatzea helburu duten dirulaguntzen 2025ko ekitaldiko deialdia. Ikerlan Programa – Lanbide

Txanda-kontratuetarako laguntzak

Ordezkatzaile bat kontratatzeko laguntzak, enpresan erretiro partziala hartu duelako.

ZER DA

2024ko urriaren 19tik aurrera hasitako lanaldi osoko txanda-kontratuak, EAEko lantokietarako. Iraupena: mugagabea edo iraupen jakinekoa, hura amaitzean edo lehenago mugagabe bihurtzeko konpromisoarekin.

HELBURUAK

Enpresan erretiro partziala hartzeagatik, txanda-hartzaile den pertsona baten kontratazio mugagabea bultzatzea.

NORENTZAT

Berritze-prozesuan dauden enpresak, baldin eta beren plantilletan 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako talentu gaztea sartu behar badute belaunaldi-erreleborako.

Txanda-kontratuetarako laguntzak

EZAUGARRIAK

Kontratatu beharreko ordezkoak egoera hauetakoren batean egon behar du:

1-Enpresan aktiboan ez badago, baldintzak honako hauek dira:

a) 30 urtetik beherakoa edo 45 urtetik gorakoa izatea.

b) langabezian, dagokion enplegu-zerbitzu publikoan izena emanda eta alta emanda egotea kontratua hasi aurreko egunean.

2- Enpresan jardunean badago, baldintzak honako hauek dira:

2.1) 30 urtetik beherakoa edo 45 urtetik gorakoa izatea, eta honako baldintza hauek betetzea:

a) enpresarekin iraupen jakineko kontratu bat hitzartuta izatea.

b) kasu horretan, enpresak kontratu gehigarri bat egin beharko du, gutxienez txanda-hartzailearen aurretiazko aldi baterako kontratua amaitzeko falta den denborari dagokiona. Kontratu horrek gutxienez hilabete iraungo du eta 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsona batekin egingo da, baldin eta 1) b idatz-zatiko baldintza betetzen badu edo 30 urtetik beherakoa bada eta enpresa berean edozein motatako prestakuntza-kontratua hitzartuta badu edo lanekoak ez diren praktikaldiak egiten baditu.

Txanda-kontratuetarako laguntzak

EZAUGARRIAK

2.2) 30 urtetik beherakoa izatea eta baldintza hauek betetzea:

a) enpresa berean edozein motatako prestakuntza-kontratu bat hitzartuta izatea edo lanekoak ez diren praktikaldiak egitea, kontratazioaren ondorengotza ahalbidetzeko.

b) Txanda-hartzaile izatera igarotzea, kontratu horren edo lanekoak ez diren praktiken indarraldian edo kontratua amaitu eta hurrengo egunean.

2.3) Adinari buruzko baldintzak ez dira aplikatuko, eta errelebista izan daiteke enpresako langile bat, baldintza hauek betetzen badira:

a) enpresan aurretiko akordio bat egon behar da, erretiro partzialen ondorioz enpresan jardunean dauden langileekin egiten diren txanda-kontratuak estaltzeko prozedurari buruzkoa.

b) Enpresak kontratu gehigarri bat egin behar du gutxienez 3 hilabeterako, eta, nolanahi ere, txanda-hartzailearen aurreko kontratua amaitzeko falta den denborarako, baldin eta aldi hori 3 hilabetetik gorakoa bada 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsona batekin, 1) b) idatz-zatiko baldintza betetzen badu edo 30 urtetik beherakoa bada, eta enpresa berean edozein motatako prestakuntza-kontratua hitzartuta badu edo lanekoak ez diren praktikaldiak egiten baditu.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa: 8.400 €. Zenbateko hori % 10 igoko da erreleboa hartzen duen pertsona emakumea bada.

d) Ordaintzeko modua: - % 60 eskaera baiestean.

e) - % 40, laguntza eman zenetik urtebete igaro ondoren .

Txanda-kontratuetarako laguntzak

INFORMAZIO OROKORRA

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: 945 160 600 (Informazio orokorra)

Erakunde eta enpresentzako informazio orokorra : 945 160 601

✉ **ayudas.relevo@lanbide.eus**

ESTEKA INTERESGARRIAK

Txanda-Kontratuak laguntzak

Kontziliaziorako kontrataziorako laguntzak

ZER DA

Familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan, seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordezkatzeko kontratazioa bultzatzea.

HELBURUAK

Familia-bizitza eta lan-bizitza orekatuko dituen lan-harremanen kontzeptu berri bateranzko prozesua bultzatzea, familiei eta enpresei zuzenean lagunduz eta, zeharka, gure gizartearen garapenari lagunduz.

NORENTZAT

Pertsona fisikoei eta pertsona juridiko pribatuei

Langabetu gisa inskribatutako pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak emango dira, bai eta aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzeko ere, besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezteko, betiere eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute honako hauek zaintzeko:

a) seme-alabak

b) Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak, betiere eszedentzia edo lanaldi-murrizketa egoera horiek gertatzen badira.

Kontziliaziorako kontrataziorako laguntzak

- Kontratazio berrien kasuan, baldintza hauek bete beharko dituzte:
- a) Gutxienez egutegiko 59 eguneko iraupen jarraitua izatea.
- b) Ordezkatutako pertsonaren kontratuan itundutako lanaldi bererako gutxienez sinatzea, eszedentziagatiko ordezkapenaren kasuan, edo murriztutako ehunekoaren baliokidea den lanaldirako, murrizketagatiko ordezkapenaren kasuan. Ordezkatutako pertsonaren kontratuaren eta kontratatutako pertsonaren kontratuaren arteko baliokidetasun-baldintza horri diruz lagundu daitekeen jarduketa osoan eutsi beharko zaio.

Laguntzen zenbatekoa

- Besteren konturako langileak kontratatzen direnean, edo kooperatiba-sozietateen kasuan, iraupen mugatuko bazkide langileak edo lan-bazkideak kontratatzen direnean, kontratuak diruz lagunduko dira, kontingentzia arruntengatik enpresak Gizarte Segurantzari egiten dion kotizazioaren % 100eraino, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu horrengatik diruz lagundu ez duen aldearen zenbateko berean, hala badagokio.
- Kooperatiba-sozietateek iraupen mugatuko bazkide langileak edo lan-bazkideak kontratatzen badituzte, eta sozietate horien estatutuek erabaki badute bazkide langileak edo lan-bazkideak langile autonomoen parekotzat hartzea Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, kontingentzia arruntengatiko kotizazio-tasa (aldi baterako ezintasuna kenduta) gutxieneko kotizazio-oinarriaren gainean edo, hala badagokio, kotizatzeko kuota bakarraren gainean aplikatzearen ondoriozko kuotaren zenbateko baliokidea emango da diruz.

ESTEKA INTERESGARRIAK

Kontziliaziorako kontrataziorako laguntzak

04/ Laneratze

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Lan-eskaintzak

ZER DA

Enplegu-eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza-zerbitzua.

HELBURUAK

Enplegu-eskaintzak kudeatzea, langabeen edo landunen datu-base zabal batetik abiatuta eta enplegu-eskaintza Lanbideren webgunean zabalduz

Lanpostuak betetzeko eskakizunetara egokitzen diren hautagaitzak lortzea

NORENTZAT

Lanbide-profil eta lanpostu desberdinetarako hautagaitzak behar dituzten enpresak. Zerbitzu horren osagarri, enpresek dirulaguntzei, pizgarriei eta hobariei buruzko aholkularitza ere jaso dezakete, erreklutamendua eta hautaketa bideratzeko.

Lan-eskaintzak

EZAUGARRIAK

Zerbitzu malgua, enpresarekin adostu beharrekoa.

Kanal anitzeko arreta (webgunea, telefono bidezkoa eta/edo aurrez aurrekoa).

Enplegu-eskaintza Lanbideren webgunearen bidez zabaltzea (zerbitzu hori soilik eska daiteke)

Profil profesional anonimizatuak kontsultatzeko aukera, eskaintzarenfase desberdinetan sar daitezkeenak (eskaera eta/edo izapidetzean).

Hautagaien lanbide-profila definitzen laguntzea.

Bitartekaritza, lanpostua betetzeko balioetsi daitezkeen baldintzen eta/edo alderdien arabera

Aurrehautaketa, CVaren arabera

Enpresak eskatutako hautagai-kopurua enpresak adierazitako epean bidaltzea.

Erantzun arina, 48 ordu baino gutxiagoan posible dena

Hautagaiak deitzea (telefono bidez, SMS bidez, posta elektronikoz...).

Lan-eskaintzak

ESTEKA INTERESGARRIAK

Informazio orokorra edo hitzordua telefonoz eta/edo aurrez aurre enplegu-bulegoetako teknikariekin: 945 160 601

✉ **Laneratze@lanbide.eus**

(eskaintzak aurkezteko moduari buruzko zalantzak)

www. Lanbide.euskadi.eus (Enpresak atala > Kontratatzeko > Eskaintzak argitaratu)

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Publikoko enplegu-bulegoak eta zentro laguntzaileak

05/ Gabinete Teknikoa

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Lan-merkatuari buruzko ikerketak eta estatistikak

ZER DA

EAEko lan-merkatuaren adierazleen egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa, enplegu-eskaintza eta -eskariari, lanbideei eta udalerriei dagokienez.

HELBURUAK

Lan-merkatuari buruzko informazio-beharrak asetzea, erabakiak behar bezala hartzen laguntzeko.

NORENTZAT

Beren sektoreko enplegu-eskaria ezagutu nahi duten enpresak, enpresa-elkarteak eta klusterrak.

Enplegu-politikak planifikatzen eta/edo kudeatzen dituzten erakundeak eta entitateak.

Lan-merkatua aztertzeko eta ikertzeko erakundeak.

Enplegagarritasuna eta enplegu-bilaketa lan-merkatuaren ezaugarrietara egokitu nahi duten pertsonak.

Lan-merkatuari buruzko ikerketak eta estatistikak

EZAUGARRIAK

Lan-eskaintzari dagokionez, EAEn egindako kontratazioak eta Lanbiden dauden lan-eskaintzak aztertzen ditu. Informazioak barne hartzen ditu eskatutako lanbide motak, jarduera-sektoreak eta horien kontratazio-bolumena, kontratu eta lanaldi motak, bai eta kontratatutako pertsonekin lotutako aldagaiak ere.

Informazioa estatistika-eragiketa eta administrazio-erregistro nagusietan banatzen da, aldi eta aldagai interesgarriak hautatuz, honako eremu hauetan: enplegu-eskaintzak, kontratazioak, ikasketak amaitu dituzten pertsonak lan-munduan sartzea (LH eta unibertsitateak), lan-merkatuari buruzko txostenak, langabezia, enplegu-eskatzaileak eta beste estatistika batzuk.

Interesa duten lanbideetan edo udalerrietan informazio-bilaketa zehazteko irizpideak hautatzeko aukera dago. OPEN TASK ere badago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren tresna gisa, erregistratutako pertsonen kolektiboei buruzko informazio zehatza eta eguneratua biltzeko aukera ematen duena.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

✉ **lanmerkatua@lanbide.eus**

Erakunde eta enpresentzako informazio orokorra : 945 160 601

Ikerketak eta estatistikak

OPEN TASK- Ikerketak eta estatistikak

FutureLan

FUTURELan
Observatorio de Prospectiva de Empleo

Lanbide

ZER DA

Euskadiko enpleguaren eta okupazio-joerak aztertzen dituen prospektiba behatokia. 10 urtera begirako aurreikuspenak eskaintzen ditu EAEko sektore ekonomiko, okupazio, prestakuntza-maila eta jarduera-adar ezberdinetan. Enplegu-eskariaren eta -eskaintzaren proiekzioak egiten dituen tresna. FutureLan funtsezko tresna da euskal enpresetako langileen eskariari eta etorkizunean EAEko lan-merkatuko langile kualifikatuekiko egon daitezkeen desorekei buruzko informazio goiztiarra lortzeko, okupazioen eta sektore ekonomikoen ikuspegitik.

HELBURUAK

FutureLanen helburua da erreferentziazko plataforma bihurtzea enpresetako profesionalen etorkizuneko eskariari eta etorkizuneko lan-merkatuan eragina izango duten joera nagusiei buruzko informazio erabilgarria behar duten pertsona eta erakundeentzat.

FutureLan

EZAUGARRIAK

Enplegua sortzeko proiekzioei dagokienez, FutureLanek 2024tik 2036ra bitarteko aldia hartzen du, aurreikusitako garapen ekonomikoa eta ordezkapen-beharrak kontuan hartuta, Euskadiko lan-merkatuko egungo langileen erretiroen ondorioz. Etorkizuneko enplegu-aukerei buruzko informazio horrek sektoreka, okupazioka eta prestakuntza-mailaka banatutako azterketa kuantitatibo bat barne hartzen du. Informazio kuantitatiboa eskuratzeko, "sektoreak", "lanbideak" eta "prestakuntza-mailak" estekak erabil daitezke.

Horrez gain, honako hauek ere jasotzen ditu: langileen eskaintzaren bilakaera, okupazioen eta prestakuntza-mailen arabera, okupazioetan eragina izango duten joerak eta etorkizuneko eskumen-aldaketen gainean izango duten eragina, bai eta lan-merkatuaren balantze eta desoreka nagusiak ere, langileen eskariari eta eskaintzari dagokienez, okupazioen edo prestakuntza-mailen arabera.

Gainera, sektoreak eta okupazioak hautatzeko aukera ematen du, konparatzeko, bai eta hainbat prospektiba interesgarri ere.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

- Erakunde eta enpresentzako. Informazio Orokorra
- ☎ 945160601
- https://www.lanbide.euskadi.eus/informazioa/futurelan/weblan00-content/eu/

06/ Prestakuntza

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Hezibi

IZENBURUA

Prestakuntza eta txandakako lana gazteentzat.

ZER DA

Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak sustatzen dituen programa da. Enpresek dirulaguntzak jasotzen dituzte, langileek eskuratutako gaitasunak prestakuntzaren bidez enpresaren beharretara egokitzeko. Prestakuntza hau lan-jarduerarekin txandakatzen da.

.

HELBURUA

Langabetu gisa inskribatutako lanbide-heziketako edo profesionaltasun-ziurtagirietako ikasle gazteen gaitasunak hobetzea du helburu. Horretarako, ikasketak enpresan ordaindutako lan-jarduerarekin txandakatzen dira (txandakako prestakuntza-kontratua). Horrela, enpresen beharrak langileek eskuratutako gaitasunetara egokitzen laguntzen da.

.

Hezibi

EZAUGARRIAK

Urtebeteko iraupena duen eta lanaldi osoko dual prestakuntza-ereduan oinarritutako ikas-ekinezko prestakuntza-kontratua gauzatzeagatik, 2.000 euroko diru-laguntza jasotzen dute enpresek.

Ikasleek prestakuntza dualeko proiektu batean sartuta egon behar dute eta ikas-ekinezko prestakuntzako kontratu bat formalizatzeko eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte, baita Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon ere.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua. Informazio Orokorra 945 160601

✉ areadeformacion@lanbide.eus

ESTEKA INTERESGARRIAK

https://www.lanbide.euskadi.eus/diru_laguntza/2024/hezibi-enpresa/weblan00-content/eu/

Prestakuntza-premia sektorialak hautemateko azterlanak eta analisiak egitea

ZER DA

Euskal Autonomia Erkidegoan, sektoreko prestakuntza-premiak aztertzeko eta hautemateko azterlanak egiteko laguntzak.

HELBURUAK

Produkzio-sektore jakin bateko enpresek dituzten benetako prestakuntza-premia errealak hautematea, eta sektore horretako langileen gaitasunak eta kualifikazioa garatzea eta hobetzea, enpresa horien lehiakortasuna eta produktibitatea areagotzeko. Horretarako, sektoreko prestakuntza-premiak eta aztertzeko eta detektatzeko azterlanak egingo dira, eguneratuta eta EAEko enpresa-sarearen beharretara egokituta.

NORENTZAT

Euskal Autonomia Erkidegoan lantokia duten jarduera ekonomikoko sektore bateko enpresak eta/edo enpresa horietako langileak biltzen edo ordezkatzen dituzten erakundeak, baldin eta erabakitzen badute, zuzenean edo beste erakunde aditu batekin edo batzuekin batera, lantoki horietan lan egiten duten langileentzat prestakuntza-premiak aztertzeko azterlan bat egitea. Era berean, sektorearteko erakundeak ere izan daitezke onuradun, betiere ikerketak izaera sektorial esklusiboa badu.

Prestakuntza-premia sektorialak hautemateko azterlanak eta analisiak egitea

EZAUGARRIAK

Sektore-prestakuntzako beharrak aztertzeko eta hautemateko azterlantzat hartzen da honako hauei buruzko gogoeta- eta analisi-prozesua jasotzen duen dokumentua:

– Enpresetan eta bertako langileengan dauden ezagutza eta gaitasun profesionalen egoera, enpresek dituzten lehia-eskakizunei dagokienez.

– Enpresetako kideek dituzten ezagutza, trebetasun eta/edo jarreren eta etorkizuneko proiektua bermatzeko eskatzen direnen artean dauden desorekak.

– Antzemandako desoreka gainditzeko ekintzen eta ekimenen deskribapen sistematiko eta orokorra. Deskribapen horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: azterlanaren ondoriozko prestakuntza-ekintzen, -ibilbideen eta -ekimenen hierarkizazioa, sailkapena eta denbora-plangintza, horiekin lortu nahi diren helburuak, horiek egiteko erabili beharreko metodologiak, eta kostu ekonomikoari eta garapenaren bideragarritasunari buruzko aurreikuspena.

Hori guztia sektore-erakundeentzat eta horiek osatzen dituzten enpresentzat erabilgarria den tresna baten bidez egituratu eta oinarritu behar da, beren prestakuntza-planak definitu, zehaztu, kudeatu eta ebaluatu ahal izateko.

ESTEKA INTERESGARRIAK

https://www.lanbide.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/eadn2025/weblan00-content/eu/

Prestakuntza-ekintza estrategikoak enpresan

ZER DA

Enpresaren proiektuarekin lotutako prestakuntza-ekintza estrategikoak garatzeko laguntza ekonomikoak, beharren diagnostiko batean oinarrituta.

HELBURUAK

Enpresan prestakuntza-planen ezarpena bultzatzea eta sustatzea, langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko, enpresek beren lehiakortasunari eusteko aurre egin behar dieten ezagutza-erronkekin lerrokatuta.

NORENTZAT

EAEn lantokiak dituzten enpresentzat

35 langile edo gehiago dituzten enpresak. Salbuespen gisa, kopuru horretara iristen ez diren enpresak.

50 pertsona edo gehiago dituzten enpresa-taldeak

Prestakuntza-ekintza estrategikoak enpresan

Prestakuntza-ekimen hautagarrien parte dira honako kolektibo hauek:

- Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) kotizatzen duten lan elkartuko kooperatibetako langile bazkideak, estatutuek hala xedatzen dutenean.
- Enpresarekin lotura zuzena duten eta legez besteren kontura kontratatu edo kontratatu ezin diren langileak, Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatu behar dutenak (administratzaileak, senideak).
- Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Bereziari (REASS) edo itsasoko langileen Araubide Bereziari atxikitako langileak.
- Langile autonomoak

Morrokotudak

IZENBURUA

Formación y contratación de mujeres y hombres desempleados de zonas masculinizadas y feminizadas (Morrokotudak)

ZER DA

Langabeentzat eta, hurrenez hurren, eremu maskulinizatuetan eta feminizatuetan dauden emakume eta gizon langabeentzat kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko laguntzak (Morrokotudak).

HELBURUA

Prestakuntza eta kontratazioa erraztea tradizioz genero-desberdintasuna dagoen sektoreetan.

NORENTZAT

1. **Kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetarako laguntzei dagokienez, honako hauek izan daitezke onuradunak:**

- Prestakuntza jaso duten pertsonak zuzenean kontratatuko dituzten eta lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa pribatuak, edozein forma juridiko dutelarik ere. Baztertuta geratuko dira aldi baterako laneko enpresak, outsourcing jarduerako enpresak eta langileen zerbitzu anitzeko enpresak, bai eta edozein enpresa publiko ere.
- Prestakuntza-erakunde pribatu edo publikoak, egiaztatuak eta/edo Prestakuntza Erakundeen Erregistroan inskribatuak.

2. **Morrokotudak prestakuntza-ekintzen ikasleekin formalizatutako lan-kontratuak finantzatzeko laguntzei dagokionez:**

- Morrokotudak prestakuntza-ekintzetako ikasleak kontratatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoan lantokia duten enpresa pribatuak izango dira onuradun, izan pertsona fisiko edo juridiko. Ezin izango dira onuradun izan, bestalde, administrazio publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak, ez eta enplegurako aldi baterako lan-enpresak, outsourcing jarduerako enpresak eta langileen zerbitzu anitzeko enpresak ere.

Morrokotudak



EZAUGARRIAK

Diruz lagundu ahal izango dira:

a) Langabetuak kontratatzeko konpromisoa hartzen duten prestakuntza-ekintzak.

1. Langabeei oro har zuzendutako prestakuntza-ekintzak.

2. Emakume eta gizon langabeei berariaz zuzendutako prestakuntza-ekintzak, eremu maskulinizatuetan eta feminizatuetan, hurrenez hurren (Morrokotudak).

b) Eremu maskulinizatuetan eta feminizatuetan, emakumeei eta gizonei berariaz zuzendutako kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonekin egindako lan-kontratuak (Morrokotudak).

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakundeei eta Enpresei Arreta emateko Zerbitzua 945 160 601 (Informazio orokorra)

ESTEKA INTERESGARRIAK

https://www.lanbide.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2025/cc-morrokotudak-c/weblan00-content/es/

Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzara bideratutako dirulaguntzak

IZENBURUA

Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzara bideratutako dirulaguntzen 2025. urterako deialdia

ZER DA

Langile langabeentzako oro har kontratazio-konpromisoa dakarten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko laguntzak.

NORENTZAT

- **Enpresak**

➢ Prestakuntza jaso duten pertsonak zuzenean kontratatuko dituzten eta lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa pribatuak, edozein forma juridiko dutelarik ere. Baztertuta geratuko dira aldi baterako laneko enpresak, outsourcing jarduerako enpresak eta langileen zerbitzu anitzeko enpresak, bai eta edozein enpresa publiko ere.

- **Prestakuntza-zentroak**

➢ Prestakuntza-erakunde pribatu edo publikoen bidez, baldin eta dirulaguntzaren eskaera aurkezten den datan egiaztatuta eta/edo inskribatuta badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatutako Prestakuntza Erakundeen Erregistroan, autonomia-erkidegoren bateko enplegurako prestakuntza-erakundeen beste erregistro batean edo prestakuntza-erakundeen estatuko erregistroan, dirulaguntza eskatzearen arrazoi diren prestakuntza-ekintzei dagozkien espezialitateak irakasteko.

- **Hartzaileak**

➢ Lehentasunez parte hartu ahal izango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa edo beste Enplegu Zerbitzu Publiko autonomiko batean izena emanda dauden edo Gazte Bermea Sistema Nazionalaren fitxategian inskribatuta dauden langile langabeek, lan-kontratu bat egiteko aukera ematen dion administrazio-egoera batean egoteaz gain.

➢ Era berean, eta lehentasunik gabe, lanean ari diren langileek ere parte hartu ahal izango dute prestakuntza-ekintza horietan, baina inola ere ezin izango dute gainditu prestakuntza-ekintza bakoitzean programatutako parte-hartzaile guztien ehuneko 30.

Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzara bideratutako dirulaguntzen

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakundeei eta Enpresei Arreta emateko Zerbitzua 945 160 601 (Informazio orokorra)

ESTEKA INTERESGARRIAK

Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzara bideratutako dirulaguntzen 2025. urterako deialdia - Lanbide

07/ Inklusioa

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO

Prestakuntzarako errotzea

ZER DA

Ibilbide integralen proiektuak, etorkinak prestatzeko eta laneratzeko sustraitze-arrazoiengatik bizileku- eta lan-baimenak errazteko.

HELBURUAK

EAEn erroldatuta dauden eta Espainian bi urtez edo gehiagoz bizi diren atzerritarren kontratazioa erraztea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integral eta pertsonalizatuei eta prestakuntza-ibilbideei lagunduz. Azken horiei esker, pertsona horiek kontratatu ahal izango dira, prestakuntzarako errotuta egoteagatik bizileku- eta lan-baimena emanez.

NORENTZAT

Ibilbide integralen proiektuak sustatzen dituzten erakunde gisa, honako hauek izan daitezke onuradun:

A. Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak:
   - Enplegu-agentzia gisa kalifikatutako erakundea izatea.
   - Enplegurako lanbide-orientazioan aurretik esperientzia egiaztatua izatea.
   - Egiaztatutako edo inskribatutako prestakuntza-erakundea izatea

Prestakuntzarako errotzea

B. Honako bi tipologia hauetako entitateek osatutako nortasun juridikorik gabeko taldeak:

- Erakunde sektorialak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Lan-kontratuak sustatzeko laguntzei dagokienez, EAEn lantokia duten enpresak izan daitezke onuradun, parte-hartzaileak kontratatzen badituzte.

EZAUGARRIAK

Jarduera hauek guztiak konbinatzen dituzten ibilbide integralak:

- I. fasea
  - Enpresa-prospekzioa eta lan-bitartekaritza
  - Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua
  - Prestakuntza-ibilbidea

Prestakuntzarako errotzea

- II. fasea
  - Lanekoak ez diren praktika ordainduak
  - Lan-kontratazioa

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- I. fasea
  - a) Lehenengo ordainketa, onartutako dirulaguntza osoaren % 63koa, lehen prestakuntza-ekintza hasi ondoren.
  - b) Bigarren ordainketa, guztizkoaren gainerako % 37ra artekoa.
- II. fasea
  - 6 hilabeteko LGSaren % 75eko dirulaguntza, dirulaguntza ematen den unean ordaindutakoa.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua: 945160601

ESTEKA INTERESGARRIAK

Informazioa

Errotze soziolaborala

ZER DA

Migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralen proiektuak, errotze soziolaboraleko arrazoiengatik bizileku- eta lan-baimenak lortuz

HELBURUAK

EAEn erroldatuta dauden eta DSBEa jasotzen duten eta Espainian hiru urtez bizi diren atzerritarren kontratazioa erraztea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integralak eta pertsonalizatuak lagunduz. Horiei esker, pertsona horiek kontratatu ahal izango dira, bizileku- eta lan-baimenaren bidez, errotze soziolaboraleko arrazoiengatik.

NORENTZAT

Ibilbide integralen proiektuak sustatzen dituzten erakunde gisa, honako hauek izan daitezke onuradun:

A. Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak:
   - Enplegu-agentzia gisa kalifikatutako erakundea izatea.
   - Enplegurako lanbide-orientazioan aurretik esperientzia egiaztatua izatea.
   - Egiaztatutako edo inskribatutako prestakuntza-erakundea izatea

Errotze soziolaborala

B. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, baldin eta beren helburuen artean kolektibo behartsuak gizarteratzea eta laneratzea badute edo gutxienez 36 hilabeteko esperientzia egiaztatua badute etorkinak laneratzeko programak zuzenean gauzatzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin edo sektore publikoko edo gizarte-ekintzako beste edozein administrazio edo erakunderekin lankidetzan eskuratua.

C. Arabako, Bilboko eta Gipuzkoako merkataritza-ganbera ofizialek, aldez aurretik gutxienez 36 hilabeteko esperientzia egiaztatua badute langabeei enplegurako orientazio profesionala emateko ekintzak zuzenean gauzatzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin edo sektore publikoko beste edozein administrazio edo erakunderekin lankidetzan eskuratuta.

D. Euskal Autonomia Erkidegoan lantokiak dituzten enpresak biltzen edo ordezkatzen dituzten enpresa-erakundeak eta -elkarteak.

E. Udalak, tokiko edo eskualdeko garapen-agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko sektore publikoko beste erakunde batzuk.

Lan-kontratuak sustatzeko laguntzei dagokienez, onuradunak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan lantokia duten eta parte-hartzaileak kontratatzen dituzten enpresa pribatuak, pertsona fisikoak zein juridikoak.

Errotze soziolaborala

EZAUGARRIAK

Jarduera hauek uztartzen dituzten ibilbide integralak:

- I. fasea – 1. motako proiektua
  - Enpresa-prospekzioa eta lan-bitartekaritza
  - Prestakuntza-programa eta beste laguntza-jarduera batzuk bizileku- eta lan-baimenaren administrazio-izapideetan.
- I. fasea – 2. motako proiektua
  - Enpresa-prospekzioa eta lan-bitartekaritza
  - Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua
- II. fasea
  - Lan-kontratazioa

Errotze soziolaborala

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- I. fasea
  - a) Lehenengo ordainketa, onartutako dirulaguntza osoaren % 66koa, lehen prestakuntza-ekintza edo ibilbide pertsonalizatua hasi ondoren.
  - b) Bigarren ordainketa, guztizkoaren gainerako % 34ra artekoa.
- II. fasea
  - Kontratuaren benetako iraupena justifikatu eta egiaztatu ondoren ordaindutako dirulaguntza.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Erakunde eta Enpresentzako Arreta Zerbitzua: 945160601

LOTURA INTERESGARRIAK

Errotze soziolaborala-Ibilbide integralak

Errotze soziolaborala-Lan kontratazioa

Eskerrik asko